


Denbora-



1 Hizki salda

Arkakuso, azterketa eta lorategia. Miren erotuta dabil, hitzak bilatu ezinik. *Ikusten al dituzu lapikoko hitzak hizkien artean?*



2 Zazpi aldeak

Aitonaren baserriari argazkiak ateratzen aritu da Itziar. Argazkiari zazpi aldaketa egin dizkiogu. *Ikusten al dituzu?*



- pasak


3 Aurkitu irudian

Mozorro dendara sartu, eta askotariko txapelak erakutsi dizkiote Gorkari. Hiru, ordea, berdin-berdinak ziren. Zein?




4 Itzalak

Ehunka belaontzi itsasoan nora ezean ikusi ditu Enekok. Konturatzen al zara bi berdin-berdinak direla?



5 Ordenatu irudiak

Sugeak liluratzeko ikuskizuna ikusi zuen Josunek Indian. Irudiak lekuz aldatu ditugu. Ordenatuko al dituzu?



Jolasa

Saskiratze bikoitza!

Ez, ez da saskibaloia partida ohikoa. Helburua: lehen saioan baloia saskiratzea. Tiratzaile ona bazara, ez duzu zertan kezkatu



- 1 Lehenik eta behin, baloia zein ordenatan jaurti behar duten erabaki behar dute jokalariek.
- 2 Jaurtiketa lerrotik atzera jarri behar dute jokalaria guztiek, adostutako hurrenkeran. Baloia banarekin egongo da jokalaria bakoitza.
- 3 Baloia jaurti eta saskiratzen ahaleginduko da lehen jokalaria. Lortzen badu, lerroaren atzera joango da.



- 4 Saskiratzea lortzen ez badu, ordea, baloiaren bila joan beharko du, azkar-azkar. Baloia errebotean jaso, eta berriro jaurtiko du saskira. Hori guztia bigarren jokalaria baloia jaurti aurretik egin behar du.
- 5 Bigarren ahaleginean ere huts egiten duen lagunak gainerako jokalariek jarritako proba bat gainditu beharko du.

